

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	SPRI, Enpresen Garapenerako euskal agentzia
2. Sektorea:	Administrazio publikoa - Industria
3. Langile kopurua:	72
4. Webgunea:	www.spri.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko erakundea da, euskal industria bultzatzea helburu duena. Digitalizazioa, Ekintzaitza, Ikerketa eta Garapena, Berrikuntza, Kluster politika, Zibersegurtasuna eta Trantsizio digital jasangarria dira SPRIren lan-ildo estrategikoak. SPRI Taldeko kide diren Arrisku Kapitala, Basque Trade & Investment, SPRILUR eta Euskadiko Parke Teknologikoak kontuan hartuta, Finantzaketa, Nazioartekotzea eta Azpiegiturak ere gehitu behar dizkiogu aurreko zerrendari. Lan-ildo hauek bultzatzeko enpresei zuzendutako laguntza-programak kudeatzen ditu Sprik.</p> <p>Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko BERPIZTU programa (2020-2024) eta bertatik eratorriko diren planak dira SPRIren Kudeaketa Planaren esparru orokorra. Programak bi ardatz bertikal ditu: batetik, Ekonomia suspertzeko ardatza eta, bestetik, enplegua dinamizatzeko ardatza. Bi ardatz horiek 12 jarduera-politikaren bidez garatzen dira, eta horiexek osatzen dute ekonomia eta enplegua berreskuratu eta suspertzeko neurri eta tresnen erreferentzia-esparrua, 2024ra arte garatuko dena. Bada hirugarren ardatz bat ere: enpleguaren kalitatea eta genero berdintasuna.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Miren Jasone Aretxabaleta Osa
Helbide elektronikoa:	jaretxabaleta@spri.eus
Telefonoa:	944037068 - 607084538

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	JENDAURREKO EKITALDIEN PROTOKOLOA eta JARRAIPENA
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Zer da.- 2021.urte bukaeran onartu eta martxan jarritako protokoloa da, Hizkuntza-irizpideekin bat datorrena. Jendaurreko ekitaldietan parte hartzen duten SPRIko ordezkariak hizkuntza-irizpideak betetzen laguntzeko erreminta bat da.</p> <p>Zertan datza.- Jendaurreko ekitaldietan jarraitu beharreko hizkuntza-irizpideak zehazten dira protokolo honetan hainbat elementu kontuan hartuz: hizlariak euskaraz hitz egiteko gaitasuna duena ala ez, publikoa euskalduna, elebiduna edota nazioartekoa den, kasu bakoitzean ahoz eta idatziz euskarak izan behar duen presentzia ezartzen da protokoloan.</p> <p>Bide batez, SPRIk antolatzen dituen jendaurreko ekitaldien jarraipena ere egiten hasi gara (ikastaroak, prestakuntza jardunaldiak, tailerrak etaba...), euskarak duen presentzia neurtzeko.</p> <p>Jarraipenerako fitxa bat landu dugu eta Kudeaketa sistemak txertatu. Hilabetero Spriko arlo bakoitzak bete behar du fitxa hori.</p> <p>Onurak – Emaitzak.- Jendaurreko ekitaldietan parte hartzen duten SPRIko lankideek euskara kontuan hartzeko modu bat da eta era berean hizkuntzen erabilpenean laguntzeko tresna bat.</p> <p>Halaber, SPRIn antolatzen dituen ekitaldietatik euskaraz zenbat egiten diren jakiteko bide bat zabaldu dugu.</p> <p>Protokoloa ezarri berria da eta oraindik protokolo honen dinamika ez da pertsona guztietara hedatu. Jarraipenerako fitxaren lanketarekin oraindik ez dugu amaitu.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

JENDAURREKO EKITALDIETARAKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Euskal Autonomia Erkidegoan egingo diren ekitaldietan parte hartuko duten Spri Taldeko sozietateetako ordezkarietako jarraibideak, euskararen erabilera arautzeko. Jarraibide hauek batez ere zainduko dira Spri taldeak antolatzen baditu. Berak antolatu ezean, jarraibide hauen berri emango zaie antolatzailerei.

- SPRIk eta Taldeko sozietateek antolatzen dituzten kanpo-ekitaldietan sistematikoki eta diseinu-fasetik hartuko da kontuan hizkuntzen kudeaketa. Euskararen erabilera ekitaldiz ekitaldi zehaztuko da, ekitaldiaren ezaugarrien eta hartzaileen hizkuntza-errealitatearen arabera.
- Oro har, ekitaldien hartzaileak euskaldunak direnean edo euren jarduera euskaraz gauzatzen dela jakina den kasuetan, ekitaldi horiek euskaraz egingo dira. Beste guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanez, eta hori ezinezkoa denean, euskararen gutxieneko erabilera bermatuz.

Euskara gaitasuna duten hizlaria:

EAEko publikoa: Euskararen presentzia bermatuko da

- Entzulego euskalduna: hizlariak euskaraz hitz egingo du eta aurkezpena euskaraz egongo da ehuneko ehunean.
- Entzulego euskalduna/erdalduna: hizlariak euskara/gaztelania tartekatuko ditu bai ahoz bai aurkezpenean-pptan (%50 euskaraz, %50 gaztelaniaz)
- Entzulego erdalduna: hizlariak gaztelania erabiliko du nagusiki, baina euskarazko esaldi batzuk tartekatuz. Aurkezpena (ppta) euskaraz/gaztelaniaz egingo da

Euskara gaitasunik ez duten hizlaria:

EAEko publikoa: Euskararen presentzia bermatuko da - hizlariak euskaraz egingo du lehen agurra, baita amaiera ere.

- Entzulego euskalduna*: publikoari erakutsiko zaion aurkezpena-ppta nagusiki euskaraz izango da.
- Entzulego euskalduna/erdalduna: publikoari erakutsi zaion aurkezpena-ppta euskaraz/gaztelera, ahal denean %50 hizkuntza bakoitza.
- Entzulego erdalduna: publikoari erakutsiko zaion aurkezpena-pptan euskarari tokia egingo zaio %25ean.

* (Orohar, entzulegoa euskalduna den kasuetan (ekitaldia bera euskara hutsean da -Enpresarean, Udaltop,...- edo lekua erabat euskalduna da) sozietateek hizlari euskaldunak bidaltzeko ahalegina egingo dute)

Euskara gaitasuna duten eta ez duten hizlaria:

EAEko eta atzerriko publikoa: Euskararen presentzia bermatuko da -

- Hizlariak euskara erabiliko du ongi etorria emateko eta amaierako agurra egiteko.
- Erabiliko den pptan euskarazko hitzak/esaldi laburrak txertatuko dira.

Jarraipena

ARDURADUNAK, LAGUNTZAK ETA BALIABIDEAK: Jarraibide hauek betetzeko ardura izango du jendaurreko ekitaldia antolatzen duen pertsonak. Horrek bermatu beharko du jarraibide hauek betetzen diren. Edozein zalantza edo laguntza behar izanez gero, Euskara Batzordeko arduradunengana jo behar du.

ZABALKUNDEA: Spri-ko komunikazio kanalak erabiliko dira zabalkundea ziurtatzeko, eta informazioa kide guztiei helduko zaiela ziurtatuko da. Era guztietako hornitzaile edo azpikontrataturako enpresei Spri-ko jarraibide hauen berri emango zaie.

JARRAIPENA: Jarraipena urtean behin egingo du Euskara Batzordeak, aurkitutako desbideratzeen berri, zuzendariari emango zaio eta berarekin batera ekintza zuzentzaileak eta egokitzapenak egiteko epeak adostuko dira.



JENDAUURREKO EKITALDIETARAKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK - *CRITERIOS LINGÜÍSTICOS PARA EVENTOS PÚBLICOS*
PR02 - <http://iis94/intranet/pages/explorer.aspx?path=euskara>

BETETZE MAILA CUMPLIMIENTO

SPRIko arloa eta arduraduna <i>Área de SPRI y responsable (1)</i>	Ekitaldia <i>Evento (2)</i>	Eguna-Tokia <i>Día-Lugar (3)</i>	Antolatzailea <i>Organizador (4)</i>	Deialdia – Dokument. euskara% <i>Convocatoria – Docu. % euskera (5)</i>	Hizlaria: euskara % <i>% euskera ponente (6)</i>	PPTa: euskara % <i>% euskera PPT (7)</i>

- (1) Spriko arloaren izena eta ekitaldiaren ardura izan duen pertsona / *Nombre del área de SPRI y de la persona encargada del evento o la participación en el mismo.*
(2) Ekitaldiaren izena / *Nombre del evento.*
(3) Ekitaldia noiz egin den eta non egin den / *Día en el que se ha celebrado el evento y el lugar.*
(4) Ekitaldia antolatzen duen erakundea / *Entidad organizadora del evento.*
(5) Deialdian eta bidalitako dokumentazioan euskararen presentziaren ehunekoa / *Porcentaje de la presencia del euskera en la convocatoria y documentación enviada.*
(6) SPRIko hizlariak ahoz erabili duen euskararen ehunekoa / *Porcentaje de utilización del euskera por parte de la persona de SPRI que ha ejercido de ponente.*
(7) Hitzaldian zehar pantailan erakutsitako aurkezpenen euskararen presentziaren ehunekoa / *Porcentaje de presencia del euskera en la presentación mostrada en pantalla.*